

PLAN 2020 de FORMACIÓN para la MEJORA DEL NIVEL COMPETENCIAL en LIDERAZGO de PERSONAL DIRECTIVO y RESPONSABLES de la ADMINISTRACIÓN PÚBLICA LOCAL

1. AURREKARIAK

Tokiko administrazio publikoko zuzendari eta arduradunen BURUZAGI-GAITASUNA HOBETZEKO 2018an garatu zen plan pilotua oinarri hartuta, hemen azaltzen den programa berri hau proposatu du EHUK buruzagitzarako gaitasuna garatzeko, 2020ko urtarriletik ekainera aplikatzeko asmoarekin.

2. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Prestakuntza-plan honetan, aurrekoan bezala, "Tokiko Zuzendaritza Publikoko Programan" zehaztutako helburu nagusia da programaren gaia, hau da, tokiko administrazio publiko arduradunei prestakuntza ematea pertsonen zuzendaritza profesionalizatzeko.

Lehenengo edizioa programa pilotu moduko bat izan zen. Edizio haren ondorengo ebaluazioa eta konklusioak oinarri hartuta, bigarren plana abiaraziko da 2020an. Udalmultzo batentzat pentsatu da programa (gehienez 5 udal eta udal bakoitzeko 2 lagun), berrogeita hamar orduko prestakuntza presentzial teoriko-praktikoa emango da buruzagitza edo lidergoaren hainbat arlo transbertsali buruz (komunikazioa, erronka-ikuspegia, egikaritza ezagutzea eta ebaluatzea, talde-laneko rola, pertsuasioa, etengabeko hobekuntza, negoziazioa, gatazkak ebaztea, atazak delegatzea, kompetentzia sozialak, adimen emozionala eta pertsonen garapena) eta beste berrogeita hamar ordu emango dira gai horiei lotutako kompetentziak praktikan jartzeko eta aplikatzeko. Udal guztientzat prestakuntza teoriko presentzial oso bat planifikatu da, lehenengo bi saioetan, testuinguru orokorra finkatzeko eta Lidergo

Transformatzailearen oinarri teoriko nagusiak azaltzeko. Aurreko edizioan bezala, kontuan hartuko da bi taldeetako bat udal bereko agentez osatua izateko aukera.

3. PROGRAMAN SARTZEKO BALDINTZAK

Programan sartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Tokiko administrazio publikoan zuzendari- edo arduradun-kargu formal bat izatea.
- Gutxienez 5 laguneko taldeen edo pertsonen ardura izatea zuzenean.
- Bere ardurapeko pertsonekin zuzeneko harremana izatea ohiki
- Kontratu Psikologikoaren konpromisoaren bidez, aukera eta ebidentzia izatea prestakuntza-planean eskuratutako konpetentziak praktikan jartzeko planaren barruan adostutako lan eta proiektu formulen bitartez, eta, gero, eskuratutako konpetentzia-maila ebaluatzen parte hartzeko.
- Lidergo Transformatzailearen oinarri teorikoak ez ezagutzea edo, ezagututa ere, praktikan jartzeko zailtasunak izatea.
- Lidergoaren arloko premia espezifikoak izatea pertsonak edo lantaldeak kudeatzeko.

4. HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Programan sartzeko plazak mugatuak direnez, goian aipatutako baldintzez gain, programan parte hartuko dutenek lan egiten duten udalek hauetako ezaugarrietako bat izan beharko dute:

- EUDEL-IVAPek bultzatutako "HAZ BAT GARATZEKO ETA EZARTZEKO PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA EMATEKO PLANA" izeneko prestakuntza-ekintza programetan parte hartu izana
- Ibilbide tekniko-politiko hauetan parte hartu izana:
 - UDALEN BERRIKUNTZARAKO ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA
 - UDAL-KUDEAKETARI (POLITIKARI) BULTZADA BAT: UDALETARAKO BERRIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA PROIEKTUAK 2019-2023 AGINTALDIRAKO

Programarekin hasi aurretik, Kontratu psikologikoaren eredu bat banatuko zaie parte-hartzaileei. Kontratu mota horrek parte-hartzaile bakoitzaren goragoko mailako bermea eta babesa izan behar du, eta publikoa izan behar du gainera lan-ingurunean, parte-hartzaile bakoitzak bere lider-kompetentzia trazarik gabe zabaldu ahal izan dezan, betiere prestakuntza-planean ezarri eta adostutako ekintzen eta helburuen esparruan.

5. JARDUEREN EGITURA ETA GAIK

1. saioa: Testuinguru orokorra

Hasteko, Psikologia Sozialaren ikuspegitik lider-portaera eta transformazioaren orientazioa nola ulertzen diren azalduko da, nolako rola jokatzen duten jarrerak, eta neurozientziak lidergoa esplikatzeke egindako ekarpen garrantzitsuak jorratuko dira. Arlo honetan duten garrantzia eta gaurkotasuna kontuan hartuta, lidergoaren inguruan landuko diren bi gaiak izango dira: lider izateko **Kompetentzia soziala** eta lider moduan aritzeko **Adimen emozionala**.

2. saioa: Teoria: Lidergo transformatzailea

Saioaren muina **Lidergo transformatzailea** izango da. Oinarri orokorrak azalduko dira, Lidergo transformatzailearen lau dimentsioei erreparatuz: Estimulazio intelektuala, Kontsiderazio indibidualizatua, Inspiraziozko motibazioa eta Eragin idealizatua.

3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9. saioak: Aplikazioko saioak

Zazpi saio hauetan zehar (eta baita lanpostuan ere) parte-hartzaile bakoitzak bere **LIDERGOA GARATZEKO PROIEKTUA** zabalduko du, ibilbide espezifiko bati jarraituz. Lidergo-zabaltze horretan lagun izango dituen gai transbertsalak hauek izango dira: komunikazioa, erronka-ikuspegia, talde-laneko rola, pertsuasioa, etengabeko hobekuntza, negoziazioa, gatazkak ebaztea, atazak delegatzea eta pertsonen garapena.

Atal horietan kasu praktikoak egingo dira eta praktika espezifikoak landuko dira; esperientziak, informazioa eta ezagutza elkarrekin partekatuko dira *Briefing* bidez; **LIDERGO-IBILBIDE** bakoitzaren jarraipena egingo da, atazak esleituko dira eta gero horien *feedbacka* egingo da.

Ibilbideari jarraituz lidergoa garatzeak esan nahi du bereizi egin behar direla ***norberaren kompetentziak*** (parte-hartzaile bakoitzak dagoeneko badauzkanak; horiek aurrekariak dira, lehenagokoak, auto-behatuak dira eta lidergorako potentziala adierazten dute), ***karismari lotutako kompetentziak*** (Lidergo transformatzailearen eredua) eta ***garatzen ari diren lidergo-kompetentziak*** (parte-hartzaile bakoitzak bere ikaskuntza-prozesuan lehenesten eta pertsonalizatzen dituenak).

Lidergo-proiektua eta ibilbidea kudeatzeko aplikatuko den laneko metodoa ***Aurrejoera-Erraztea-Indartzea*** formatuari lotuko zaio; formatu horretan bereziki lantzen dira *uste sendoak* eta *espektatibak benetako esperientziako egoeretan*, *erabateko arreta* eta *autoafirmazioa*.

Ikasteko metodologia, prestakuntza-plana, lidergorako ibilbidea eta lidergo-proiektua bakoitzari egokitzeko, **5 aukera nagusi** hauetako bat hautatu beharko du parte-hartzaile bakoitzak hasieran, bere lidergo-proiektua eta-ibilbidea zehazteko:

1	<i>Pertsonen arteko harremanak</i>	Pertsonak beren arteko harremanen eta interakzioaren bidez nola laguntzen duten erakundearen garapenean.
2	<i>Pertenentzia-sentimendua</i>	Pertsona zenbateraino identifikatzen den erakundeak bere burua eraldatzeko, aldatzeko eta berritzeko egiten dituen saioekin.
3	<i>Trukea eta berrelikadura</i>	Ezagutza elkarrekin trukatzeko nola laguntzen duen balioa elkarrekin sortzen dela sentitzen.
4	<i>Prozesu kudeaketa</i>	Pertsonak eta erakundeak lerrotzea aldatzeko, eraldatzeko eta berritzeko prozesuen bitartez.
5	<i>Aldaketaren inguruko balioak</i>	Aldaketaren, eraldaketaren eta berrikuntzaren inguruko balioek zenbateraino artikulatzen duten erakundearen kultura.

10. saioa: Balantzea:

Prozesuaren itxiera. Amaierako balantzea egingo da, parte hartu dutenentzako berrelikadura edo *feedbacka* eta programaren ebaluazioa.

6. EGUTEGIA

2020

URTARRILA						
L	M	Mi	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

OTSAILA						
L	M	Mi	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

MARTXOA						
L	M	Mi	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA						
L	M	Mi	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA						
L	M	Mi	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA						
L	M	Mi	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

7. TOKIA ETA ORDUTEGIA

Lekua: Bilbo. IVAP. Recalde zumarkalea, 18.

Ordutegia: 09:00-14:00.

8. IZEN-EMATEAK ETA MATRIKULA

IVAPen Solaskidegune aplikazio informatikoaren bidez egingo da izen-ematea. Horretarako, udaleko edo tokiko entitateko prestakuntzako koordinatzailearekin jarri beharko da harremanetan

Informazio gehiago nahi izanez gero, bidali mezu bat helbide honetara:
prestakuntza@ivap.eus

Izena emateko epea urtarrilaren 17an bukatuko da.

Prezioa: 484 € udal bakoitzeko. IVAPek onarpenak bidalitakoan, EUDELeK faktura igorriko dio dagokion entitateari.

9. ZIURTAPENA

Diploma emateko, bi baldintza hauek bete beharko dira:

- Gutxienez, Programaren ordu guztien % 80ra joatea.
- Lidergoaren Garapenari buruzko proiektua egitea.

Ziurtagiria lortzeari begira, programaren iraupena 100 ordukoa izango da (50 presentzialak + 50 lanekoak)

10. EBALUAZIO-SISTEMA

360ºko ebaluazioan programaren hartzaileek (autoebaluazioa) eta erakunde bakoitzeko langileek parte hartuko dute. Programaren hasieran ezarriko dira parte hartuko duten pertsonen **sarrerako profilak**. Horretarako, MLQ (5x-Short) galdetegia erabiliko da Lidergo Transformatzailea ebaluatzen; lidergo-jokabideak azaltzen dituen galdetegi bat da parte-hartzaileentzat eta hierarkian haien azpian eta gainean daudenentzat.

Gainera, OCTO-1 tresna ere erabiliko da erakundearen aldaketarako eta eraldaketarako orientazioa ebaluatzeko.

Zeharka, programan zehar **ebaluazio modularrak** egingo dira lidergoaren aldagai bakoitzari dagozkion konpetentziak zenbateraino eskuratzen diren neurtzeko. Programa amaitzean, ebaluazio modular horiek **amaierako ebaluazioan** txertatuko dira balantze moduan, eta profil-fitxa formatuan bilduta emango zaizkio parte-hartzaile bakoitzari, programa-**irteerako profil** moduan. Halaber, programaren **amaierako txostena** ere egingo da.

Programa amaitutakoan, proiektuaren Arduradun-taldeak aztertuko du dokumenturen bat prestatzeko aukera Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen funts dokumentaletan edo komunikazio-baliabideetan **argitaratzeko**.